

Sakanako Mankomunitateko idazkari izateko lanpostua aldi baterako betetzeko hautapen proben akta

2017ko azaroaren 21ean, goizeko 08:50ean, epaimahai kalifikatzailea osatu da —beherago aipatzen dira epaimahaikideak— hautapen probak egiteko, teorikoa eta praktikoa, eta izangaien merituak baloratzeko.

Hori dela eta, Maria Asunción Nieto Zabala, Nafarroako Udalerri eta Kontzejuen Federazioko abokatua, epaimahaiko idazkari izendatu da.

Goizeko 09:07an, izangaiei deia egin zaie. Guztira, bi izangai aurkeztu dira:

- Miren Ortiz Olabe.
- Joaquín Lizarraga Sanz.

09:10ean, lehen proba teorikoa egin da (ordubeteko iraupena izan du): Aldez aurretik, epaimahaiak proba egiteko jarraibideen berri eman die izangaiei, eta hasiera eman zaio probari. (izangaiek proba egiteko ezarritako epea baino lehen amaitu dute). Ariketa amaituta, epaimahaiak azterketak zuzendu ditu. Hona emaitzak:

1. PLIKA	25,00 puntu GAI
2. PLIKA	24,00 puntu GAI

Goizeko 10:10ean, epaimahaiak plikak ireki ditu, egintza publikoan. Hona emaitzak:

1. PLIKA	25,00 puntu GAI	MIREN ORTIZ OLABE
2. PLIKA	24,00 puntu GAI	JOAQUIN LIZARRAGA SANZ

10:20ean, proba praktikoa hasi da (bi orduko iraupena izan du). Proba hasi aurretik, epaimahaiak proba egiteko jarraibideak eta balorazio-irizpideak azaldu dizkie izangaiei.

Izangaiek ez dute meriturik aurkeztu.

Behin proba praktikoa amaituta, 12:20an, epaimahai kalifikatzailea bildu da hautapen-probetako ariketa praktikoak baloratzeko.

Hona ariketa praktikoaren emaitzak:

1. PLIKA	12,00 puntu	BAZTERTUTA
----------	-------------	------------

2. PLIKA	10,00 puntu	BAZTERTUTA
----------	-------------	------------

Goizeko 13:30ean, epaimahaiak plikak ireki ditu, egintza publikoan. Hona emaitzak:

1. PLIKA	12,00 BAZTERTUTA	puntu	MIREN ORTIZ OLABE
2. PLIKA	10,00 BAZTERTUTA	puntu	JOAQUIN LIZARRAGA SANZ

Prozesua amaitu da eta izangai bakar batek ere ez ditu proba guztiak gainditu. Hori dela eta, erreparatu behar zaio lan-poltsa sortzeko deialdiko 1.2 oinarrian ezarritakoari, non esaten den lan-poltsa hori osatuko dela probetatik bat gutxienez gainditu dutenekin, betiere probetan lortutako kalifikazioak batu eta horren arabera ordenatuta. Gauzak horrela, epaimahai kalifikatzaileak proposatu du honako zerrenda hau onartzeko:

Izena:	Proba teorikoa	Proba praktikoa.	Lehiaketaren balorazioa	Postua
MIREN ORTIZ OLABE	25,00	12,00 (Baztertuta)	-	1
JOAQUIN LIZARRAGA SANZ	24,00	10,00 (Baztertuta)	-	2

Iruñean, 2017ko azaroaren 21ean

Lehendakaria

Bokal-idazkaria:

Mikel Azkargorta Boal

Dña. María Asunción Nieto Zabala
(NKUF)

Bokala:

Bokala:

Dolores Rejero Santamaría
(Toki Administrazio Dep.)

Natalia Rodríguez Aguado

Bokala:

Itziar Iribarren Recarte